



EUSKARA ZERBITZUAREN

Aranguren Ibarreko

2 Zk. 2008ko Abendua- 2009 Martxo

Informazio Buletina

MUTILOABEITIKO SAN PEDRO IPko D EREDUA

Gurasoen eta Udalaren urte askotako lanaren ondorioz, 2008/2009 ikasturtean San Pedro IPan D eredu ezartzea lortu zen. Lourdes Telletxea da eredu horretan hasi diren 11 haur horien irakaslea. Lerro hauetan berari egindako elkarrizketa jaso dugu.

Nolakoa izan da eskolan eredu berri bat sartzeko prozesua?

Eskola honen funtzionamenduan ez du deus ere aldatu. Talde bat gehiago dagoenez gela bat egokitu da horretarako. Nire ustez prozesua oso lasaia izaten ari da.

Zer moduzkoa izan da eskolak ereduari bera-ri eta zuri egin dizuen harrera?

Oso naturala izan da. Haur Hezkuntzako irakasle bezala etorri naiz; eta hori naizenez, nire kezka guztia haurrak ezagutzea eta beraien egoeraz arduratzea izan da.



D ereduko haurrak nola ikusten dituzu?

Oso alai eta beti prest jolasteko eta gauza berriak esperimentatzeko. Adin honetan beti gertatzen den moduan.

Beste haurrekin nolako harremana dute?

Patioan, jantokian eta ateraldietan elkarrekin daude eta haurren ha-

rremana arrunt naturala da. Beraien artean ez dago traba sozialik.

Eta zure taldeko haurren gurasoak nola ikusten dituzu?

Oso lasai eta ongi. Beste ikastetxetan bezala haurren adinari eta mailari dagozkion kezkak azaltzen dituzte. Euskarazko hitzak entzuten omen dituzte etxean eta hori gustatzen zaie.

Aurrera begira, zein pauso eman behar direla uste duzu?

Nire ustez, ikastetxearen kontzeptua aldatu behar da ikastetxe elebiduna moduan ikusteko; bertan eta herrian ere. Poliki-poliki egingen da.

Nola ikusten duzu Arangurengo D ereduaren etorkizuna?

Euskarak, azkeneko urteetan bezala, gora beherekin baina aurrera egingen du, nire ustez. Gaur egun elebidunaren kezka zabaltzen ari da, hori Arangurengo D ereduarentzako ona da, D eredu baina Ibarrean komunikatzeko gaitasun nahikoarekin hiru hizkuntza (gaztelera, euskara eta ingelesa) ikasteko aukera ematen duen bakarra.



HAURRENTZAKO JARDUERAK

Sormen artistikorako eguberritarako tailerrak (ele bitan)

-Izen emateak: **abenduaren 15etik 17ra**, 012aren bidez, 8:00etatik 19:00etara.

- Prezioa: 5 € errolatuentzako eta 10 € errolatu-rik ez daudenentzako.

- Egunak: 2008ko abenduak 22, astelehena, 23, asteartea, 24, asteazkena, 29, astelehena, 30, asteartea, 31 asteazkena eta 2009ko urtarrilak 2, ostirala.

· Adina: **4-7: gehienez 40 pertsona.**

· Orduetgia: 11:00etatik 13:00etara.

· Lekua: Txalopote Ludotekako lokalak (Idoi plaza- Mutiloabeiti).

· **8 eta 12 urte bitarteko taldea: gehienez 40 pertsona.**

· Orduetgia: taldeko lana hobeki garatzeko adin honetako taldean honako banaketa egingo da:

- 10:30etik 12:00etara (20 neska-mutil).

- 12:15etik 13:45era (20 neska-mutil).

· Lekua: mediku-kontsultategiko beheko aldean (Mutiloabeiti).

Euskal-dantza tailerra (euskaraz):

- Adina : 6-11 urte

- Egunak : Astelehenetan, urtarrila (12,19,26), otsaila (2,9,16), martxo (2,9,16,23), apirila (6,20,27) eta maiatzak 4.

- Orduetgia : 17:30 – 19:00

- Lekua : Kultur Etxeko Ludoteka aretoa (Mutiloagoiti)

- Tailerren prezioa : Erroldatuek 10 € eta errolda-tu gabeak 30 €.

- Izen emateak: **abenduaren 15etik 17ra, 9:00etatik, Euskara Zerbitzuan**

- Plazak: mugatuak.

· Lehenetsuna izango dute ikastaroan parte hartu duten haurrek

· Parte hartzaileen zerrenda izen emateko hurrenkeraren arabera egingo da taldea osatu arte.

· Erroldatu gabeak zuzenean itxaron zerrenda pasako dira.



Irailetik aurrera aritu den taldea

www.katalogoa.org

Gabonetan aukera ona izaten da liburuak, bideoak edota musika oparitzeko.

Katalogo horretan euskaraz argitaratzen diren produktu egokienak eta haien inguruko informazioa argitale-txea,



prezio tartea eta abar- jaso dituzu, etxeko haur eta gazteok euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko edo gozatzeko aukera izan dezaten.

Liburuxka honako zortzi ataletan banatuta dago: musika, informatika, DVDak, liburuak, komikiak, jostailuak eta jokoak eta aldizkariak; gainera, zenbait ataletan adinaren arabera banaketa ere egingen da.

Katalogoa paperezko euskarriari nahi baduzu, Haur Eskolan, San Pedro IPan, Aranetxean, Kultur Etxean, Udaldeko bulegoetan eta Euskara Zerbitzuan topatuko duzu.

Kultur jarduerak

Adi! Jai eta Kultur arlotik otsaila martxorako antolatuko diren jardueren berri izateko egon adi kultur programari, udaleko webguneari eta Arangurengo telebista kateari.

GURASOENTZAKO JARDUERAK

(gaztelaraz)

Gurasoen Kafe Tertulia.

- Data: **abenduak 17**

- Ordua: 17:15

- Lekua: Ttipi-Tapa Haur Eskola (Mutiloabeiti)

- Norentzako: 2006 eta 2007 urteetan sortutako haurren gurasoentzako.

- Helburua: San Pedro Eskolako D ereduko gurasoak, beren ikuspegitik, eskolan matrikulatzeko adinean dauden haurren gurasoen zalantzak argitzen ahaleginduko dira.

- Haurtzaindegi zerbitzua egingo da

Euskarazko irakaskuntzaren didaktika eta abantailak.

- Data: **otsailak 17**
- Ordua: 17:15
- Lekua: argitzeko.
- Norentzako: 2006 eta 2007 urteetan sortutako haurren gurasoentzako.
- Helburua: Eduardo Aldasoro, euskarazko murgiltze programen teknikari eta pedagogo, gaiari buruzko zuen zalantza eta egonezinak argitzen saiatuko da.
- Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERAK

(euskaraz)

Mintzakide: Euskaraz txukun hitz egiten duten eta mintzamina hobetu nahi duten pertsonak elkarrekin jartzen dituen programa da. Talde txikiak osatzen dira, gutxienez astean behin elkarrekin dira, taldeen helburua euskaraz mintzatzea da.

Mintzakide mendi taldea: Mintzakide egitasmoaren bitartez sortutako talde mendizalea eta euskalduna da. Asmoa mendian zehar prestatu-eriko ateraldietan lagun giroan lasai ibiltzea da, Euskal Herriko bazter ederrak ezagutzea eta, bide nabar, euskaraz hitz egitea.

- Non? Iruñeako Zezentegiko (Corralillos) behin behineko aparkalekuan.
- Noiz aterata? Goizeko 8:15ean (8:30etan abiatzeko)
- Noiz itzuli? Gehienetan arratsaldeko 16:00etan.
- Nola? Eguraldi eragozpenik izatekotan, eguneko ibilbidea alda daiteke. Bakoitzak jatekoa eramaten du. Autoetan moldatzen gara jendearen arabera.
- Hurrengo proposamenak:
Abenduak 21: Arga ibaiaren inguruko ibilbidea, Iruñerrian
Urtarrilak 11: Bardeak
Urtarrilak 25: Sabaiza (Baldorba)
Otsailak 8: Beorlegi (Behe Nafarroa)
Otsailak 22: Mendaur (Malerreka)
Martxoak 8: Anboto (Bizkaia)
Martxoak 22: Agiña (Lesaka inguruan, Bortziak)



Informazio gehiago:
<http://www.blogak.com/mintzmendialdea>



Ardo dastatzea

Emalea: Estibalitz Besa, Arabar Errioxako enologoak, Ardanegi txiki batean lan egiten du: Bodegas **Cándido Besa**.

- Data: **otsailak 13 eta 20**
- Ordua: 19:00etatik 21:00etara
- Plazak: gutxienez 8 eta gehienez 30, iazko ikastaroan parte hartu zutenek lehentasuna izango dute.

- Adina: 18 urtetik gorakoak
- Prezioa: 6 € (3 € euskara ikasleentzako)
- Izen ematea: **otsailak 9tik 11ra**, 9:00etatik 14:00etara, Euskara Zerbitzuan eta arratsaldean Kultur Etxean eta Aranetxean.

Bertsotz bazkaria

- Eguna: **martxoak 14, larunbata**
- Ordua: 14:00ak
- Lekua: Mutiloabeitin.
- Prezioa: helduak (20 €) eta haurrak (10 €)
- **Sarrerak:** Kultur Etxean, Aranetxean eta Euskara Zerbitzuan egongo dira salgai, betiko ordu-tegian, **martxoaren 4tik 6ra**.

ARANGURENGO BIZTANLE GUZTIENTZAKO

Abenduak 24, asteazkena: **Olentzerok** Ibarreko herriak zeharkatuko ditu. Ondoko leku eta orduetan itxoin ahalko diozue:

- **Labiano:** 16:30ean (Ermitatik).
- **Taxoare:** 17:30ean. (Iturriaren parketik).
- **Aranguren:** 17:45ean (jaietsiera menditik).
- **Mutiloabeiti:** 19:00etan Mutiloabeitiko Mutiloa plazan bilduko gara Irulegi mendira Olentzerori itxotera joateko.

Inauteriak

- Noiz? Otsailak 23tik 28ra



Santa Agedako Abestaldeak

- Eguna: **Otsailak 4**
- Ordua: 20:00etan
- Lekua: Mutiloa plazan (Mutiloabeitin)



Korrika

- Zer da? Korrika, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK-k) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. 1980tik egiten da Korrika. Aurten, martxoaren 26an



Tuteran hasiko da eta apirilaren 5ean Gasteizen bukatu.

- Arangurenentik noiz pasako da? **martxoak 28an, larunbata, goizez**.

- Nondik? Mutiloagoiti eta Mutiloabeititik.
- Informazio gehiago: <http://www.korrika.org/>
- Adi! Aurreko astean, Ibarreko zenbait talde eta erakunderekin elkarlanean **zenbait jarduera** prestatuko dira.

EUSKARA IKASI NAHI ?

Helduentzako euskara eskolak AEKren eskutik.

- Maila: **hasierakoa**
- Data: Urtarrilaren 12tik ekainaren 19ra.
- Orduetaria: astelehenetik ostegunera, 18:30etik 20:30era
- Lekua: Ibaialdeko lokaletan (Mutiloabeiti)
- Plazak: mugatuak, gutxienez 10 eta gehienez 20. Lehentasuna izango dute Ibarrean erroldatuak eta urrian izena eman zutenek.
- **Izen emateak: abenduaren 15etik 17ra**, Euskara Zerbitzuan (9:00 -14:00) eta Kultur Etxean betiko orduetegan.

Helduentzako euskara eskolak AEKren eskutik.

- Maila: **2B**
- Data: Urtarriletik maiatzera
- Orduetaria: astelehenetik asteazkenara, 20:00etatik 22:00etara
- Lekua: Ibaialdeko lokaletan (Mutiloabeiti)
- Plazak: mugatuak
- **Izen emateak: abenduaren 15etik 17ra**, Euskara Zerbitzuan (9:00 -14:00) eta Kultur Etxean betiko orduetegan.

Gazteentzako euskara eskolak.

- Adina: **11 eta 16 urte bitarteko gazteak**
- Maila: taldeak eskolan ikasitako **hizkuntza ereduaren arabera (A eta G)** banatuko dira.
- Data: Urtarrilaren 12tik ekainaren 19ra.
- Orduetaria: astelehena eta asteazkenetan, 17:30etik 19:00etara.
- Lekua: zehazteko.
- Plazak: mugatuak, gutxienez 10 eta gehienez 20. Lehentasuna izango dute Ibarrean erroldatuak daudenean eta urrian izena eman dutenek.
- **Izen emateak: abenduaren 15etik 17ra**, Euskara Zerbitzuan (9:00 -14:00) eta Kultur Etxean betiko orduetegan.

PUBLIKAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako "Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren" argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuekin harremanetan. Erroldatuentzako doako aleak daude.



Jarduera hauei eta beste batzuei buruzko informazio gaurkotua jaso nahi baduzu sms edo posta elektronikokoaren bidez, bidali posta bat euskera@aranguren.es helbidera eta esan informazioa euskaraz edo ele bitan jaso nahi duzun.

Udalaren helburua Ibarreko taldeekin **elkarlanean** aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan **parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena** luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskeletako k/9, Mutiloabeiti
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 13 82
euskera@aranguren.es